




Ur-horniketaren digitalizazioa hobetzen

Kudeaketa adimentsuko sistemak berrituta, honako hauek egin ahal izango ditugu:

- Horniketa-sistema denbora errealean **monitorizatu**.
- Horniketa bermatu eta ur-kontsumoa **optimizatu**.
- Ihesak eta galerak **identifikatu**.
- Edateko uraren arazketaren funtzionamendu eraginkorra **bermatu**.



Zer jarduera bideratuko dugu?

1 / Kontrol Zentroa eguneratu datuak denbora errealean bildu, transmititu eta aztertzeko, eta instalazio guztietako ekipoak erabiltzeko.

2 / Urrutiko horniketa-instalazioetako automatizazioa, telekontrola eta teleagintea berritu.

3 / Kontagailuetako instalazioa osatu deposituetako uraren kantitatea eta jatorria kontrolatzeko.

Horiek dira uraren erabilera optimizatzeko eta jasangarriagoak izateko jardueretako batzuk. **“Arabako Lurralde Historikoko hogeita bost udalerritan uraren hiri-zikloa digitalizatzeko hobekuntzak”** izeneko proiektua bideratzeko hitzarmena Urbideren eta URAREN

(Uraren Euskal Agentzia - Eusko Jaurlaritza) arteko lankidetzari esker garatuko da Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan (NextGeneration EU). Jarduketa horretarako finantzaketa 1.027.222 €-koa da.

Gehiago jakin nahi al duzu? Galde iezaguzu eta kontatuko dizugu

Orain, zure kontagailuaren irakurketa ematea inoiz baino erosoagoa da.



674 939 132 Laudio
688 661 857 Gainerako udalerrriak



Uda honetan, lorategia, baratzea edo igerilekua baduzu, ura modu arduratsuan erabili. Ur-kontsumo handia eskatzen dute eta lehentasun handiagoa duten erabileratarako behar-beharrezkoa da.